

## **Durangoko 25. Euskal Dendak 15.709 bisitari izan ditu**

Bost Azoka egun eta 15.709 bisitari, hori da Euskal Dendaren 25. edizioaren zirkulua ixten duen laburpena. Larunbatetik asteazkenera arte, jai-egun hauetan, artisau-makroerakusleiko hau garatu da, euriari, haizeari eta beste alerta batzuei aurre eginez. Hori bai, bertan, segurtasun-neurriak zorrotzak izan dira, alabaina lehenetsi dena izan da artisauak tailerretatik ateratzea eta ia bi urteko lanak agerian uztea, izan ere, joan den 2020an ez zen egin COVID -19 gaixotasunagaitik. Beraz, “harro gaude funtzionatu duen moduz, izan duen errespetuz. Jarraitu beharreko adibide bat izan dela uste dugu”, azpimarratu zuen Arbaso Elkarteak, Euskal dendaren antolatzaileek.

Ez da Euskal Denda erraza izan, izan ere, pandemia, krisia, osasun larrialdi egoera hau, gizarte osoa hertsatuta duena, zilarrezko ezteiak betetzen ziren edizioan ere nabaritu da. Hala ere, 15.709 bisitari hauek ez zirela aurreikusita san daiteke, horrenbestez, “espero genuen kopurua soberan bete dela”, esan zuten. Arbasoren ustez, “Durangoko Azokak ere jende gutxiago mugiarazi izana nabarmena da gure azokan. Baina aurtengo zifrak perspektibarekin begiratu behar dira, eta onak dira”.

Jakina, horrek guztiak salmenta txikiagoak ekarri ditu, “baina saltzea saldu egin da. Jendeak Gabonak ospatzen jarraitzen du, agian lehen gehiago gastatzen zen, eta orain gehiago pentsatzen da, ez da modu konpulsiboan erosten, baina artisauek saldu egin dute eta, jakina, eskerrak eman behar zaizkie publiko leialari”.

Arbason 25 urte bete ez izanaren pena geratzen dira. Nahi zuten festa handi bat eta Artetsu Sarien ospakizunarekin batera ospatzea, “baina zentzudun jokatzeko nagusitu da bai artisauengan, bai publikoengan. “Izugarri ondo egon dira, biak, oso jakitun izan da jokoan dagoenaz, eta segurtasuna errespetatu da, beste ezeren gainetik”.

Era horretan, artisautzarekin izandako hitzordu jendetsu hau luzatu den bost egunetan, bisitak etengabeak izan dira. Horregatik, segurtasunaren gaia oso zorrotza izan da. «Esparruaren edukiera bete dugu une oro», adierazi zuten, eta barruan baimendutako pertsonen kupoa bete behar zen bakoitzean, sarbidea ixten genien bisitarien.

Hitzordu honen ondoren, Arbasok 26. edizioari begira jarri da, pandemia amets txarra izango delakoan eta Durangora egingo den erromesaldi jendetsu hau berreskuratuko delakoan.

Lorea Madina Bilbao  
Komunikazio arduraduna  
[prentsa@arbaso.com](mailto:prentsa@arbaso.com)  
688 87 54 81